1 Comenzaremos la excursión tomando el paseo que, paralelo a la carretera N-634, dirección Bilbao, comienza frente a la casa de Maxpe, junto al edificio del antiguo matadero municipal. A unos 500 metros llegaremos al barrio de Artzabal. Pasaremos junto a la antigua ermita de Santa Ana, y tomaremos la carretera que conduce al caserío Antzondo, siguiendo hasta el lavadero de Artzabal.

### LAVADERO DE ARTZABAL



Fue construido en 1851 para atender las necesidades del barrio. Está protegido por un tejado a dos aguas sustentado por estructura de madera. En 2004 fue restaurado, colocándose junto a él un mural realizado por el ceramista Marino Plaza.

A unos 100 metros a la derecha de la antigua central eléctrica, tomaremos el camino que asciende hacia el monte. Tras una corta pero pronunciada cuesta, alcanzaremos el collado de Istiña. Desde aquí, podemos admirar una excelente vista del meandro del río Deba. Enfrente veremos el oscuro manto de encinas cantábricas que cubre totalmente la mole de Arno.

Dejaremos a la derecha el caserío Istiña, y tras pasar por debajo de la autopista A-8 y al lado del caserío Goikoetxe, entramos en el camino-canal que desde 1920 hasta los años 60 sirvió de abastecimiento de agua a la población de Deba.



### LA TRAIDA DE AGUAS DE ARBISKOA: EL CANAL

Este canal soterrado fue proyectado en 1920 por los ingenieros Panadero y Freiberj, con el fin de atajar la precaria situación en el suministro domiciliario del agua, y al mismo tiempo municipalizar la producción y venta de energía eléctrica.

Después de 3 años de obras no exentas de problemas, en el verano de 1925 finalizó su construcción.

Actualmente fuera de uso, el recorrido del antiguo canal a través del paradisíaco Valle de Lastur ha sido convertido en la PR-GI 44, una ruta de lujo para los amantes de la naturaleza y la historia de Euskal Herria.

2 Bordeando la falda del monte Arbil veremos a nuestros pies el fondo del idílico valle, con los caseríos de Arteaga (Artia) y Sustraiaga (Sustraixa). Seguimos avanzando hasta aproximarnos a la ladera del monte Lizarreta. A nuestra derecha, a unos 100 metros abajo del camino, veremos el caserío Kortaberri, y algo más abajo, Arrasketa. Muy cerca de aquí, sobre el canal, se encuentra la cueva de Arbil.

### CUEVA DE ARBIL



La cueva, cuya boca tiene forma de arco de herradura, fue ya estudiada en 1924 por T. de Aranzadi y José M. Barandiarán.

Posteriormente, en 1977, se efectuó una excavación dirigida por Jesús Altuna y Pablo Areso.

El yacimiento ha proporcionado importantes muestras de industria lítica, de restos faunísticos y de yacimientos sepulcrales prehistóricos, estos últimos descubiertos en 1986 por miembros del Grupo Antxieta de Azpeitia.

Seguramente, tendremos la ocasión de ver pastando algún rebaño de "betizus" mientras continuamos la dirección natural del valle de Lastur.



Vista general del valle de Lastur desde el monte Gaztelu.

### UNA ENCINA SINGULAR



En terrenos del caserío Arrasketa, junto al caserío Kortaberri, a muy poca distancia del canal, existe un magnífico ejemplar de encina cantábrica, digna de ser visitada.

El árbol, en buen estado de conservación, posee una frondosa copa de 25 metros de diámetro y un tronco de 3,42 metros de perímetro a 50 cm de la base.

3 Llegados al barrio de San Nicolás de Lastur, podemos aprovechar para hacer un alto, reponer fuerzas con un ligero "hamarretako" y visitar el barrio.

### ERMITA DE SAN NICOLÁS DE TOLENTINO



Es ya citada por Lope de Isasti en el año 1625.

Históricamente ha atendido a los feligreses de los caseríos de Lastur y Arbiskoa.

La fiesta patronal en honor al Santo se celebra en el mes de septiembre.

En la pequeña plaza situada frente a la ermita se celebran capeas con reses de la zona, las conocidas *larrabeixak* ó *betizus*, la raza autóctona de vacuno más antigua de Europa.

### MOLINOS DE PLAZAOLA



Representan una verdadera reliquia patrimonial, ya que antes de su transformación en molinos fueron importantes ferrerías.

En el año 1335 consta que el rey Alfonso XI, a petición de las ferrerías del Valle de Lastur y otros valles de la comarca, expidió una cédula en la que entre otros privilegios autorizaba la tala de árboles en los montes próximos.

Los molinos, en perfecto estado de conservación y funcionamiento, pueden ser visitados por el público.

### ESPACIO INTERPRETATIVO DEL KARST




Este espacio interpretativo del Geoparque de la Costa Vasca se encuentra situado en la plaza del pequeño núcleo rural de Lastur. En él podremos conocer la historia, cultura y geología de este valle, donde el caserío, las cuevas, el agua, la piedra y los toros son los protagonistas.

Proseguiremos nuestro itinerario tomando el camino que, tras el molino, justo al lado del riachuelo, asciende hacia Murgi. Pasaremos delante del caserío Murgi, hasta llegar al caserío Murgizar.

Llegados a este punto, cruzaremos la carretera GI-3210. Dejando el camino que conduce a Urritzu y Andutz, tomaremos el camino a la derecha, bordeando la falda del monte Salsamendi.

Poco después, el camino nos situará en la vertiente opuesta del monte; habremos llegado al caserío Esteia.

4 Tomando la pista que se dirige a la izquierda, seguiremos por la ladera oriental, primero del monte Salsamendi y después del Andutz. La panorámica es excelente, pudiendo divisar al fondo los montes Jaizkibel, Peñas de Aia y Larrun.

Tras pasar varios caseríos, entre ellos Irure, y bordear Txobillar, el camino nos conducirá a la zona industrial de Itziar, y posteriormente a su núcleo urbano.

### SANTUARIO DE ITZIAR



Centro de gran atracción religiosa, la devoción por la Virgen de Itziar en la zona costera vasca, es tan antigua o más que la población de Monreal fundada en 1294.

Anterior al templo actual debió existir otro del que no se conservan restos.

Presidido por una bellísima imagen de la Virgen de estilo románico, coetánea al primer templo anterior al siglo XIV, el templo posee un bello retablo plateresco tallado en madera por Andrés de Araoz en el siglo XVI.

5 Tras una pequeña parada en Itziar para reponer fuerzas, tomaremos el camino que, junto a la plaza del santuario, parte hacia Deba. Este tramo del camino es el mismo que el de la ruta jacobea. La pista discurre frente a varios caseríos, todos ellos señalizados: Antsorregi, Gaztañeta, Zabale y Doniene, hasta llegar a un cruce.

Dejaremos de lado el camino de la derecha, el que se dirige a Olloki, siguiendo de frente y descendiendo hacia Deba. Tras pasar junto a la ermita de San Roke, en pocos minutos habremos llegado al núcleo urbano de Deba.

### ERMITA DE SAN ROKE



Está situada a pie de la calzada entre Itziar y Deba. Es una ermita de estilo popular dedicada al patrón de Deba. Aunque se desconoce su origen, es ya nombrada en 1612, y al parecer fue erigida en agradecimiento al santo de Montpellier por haber librado a la villa de una plaga de peste, acaecida en la primera década de 1600.

La imagen de San Roke preside el interior de la ermita que, como otras muchas de la zona, cuenta con un exvoto: se trata de una fragata de guerra del siglo XVIII.






# Deba

## Herriko bira

## PR Gi 44

## DEBA-LASTUR-ITZIAR-DEBA

Geoparkea
Euskal Kostaldea - Costa Vasca

eus-es



# PR-Gi 44

Ibilbide hau Deban hasi eta Lasturko haran idilikorantz doa, antzinako urkanala jarraituz, Lasturko San Nikolas landa-auzora iritsi arte. Handik, Salsamendi mendiaren magala inguratuz, gorantz, Andutz eta Txobillar mendien ekialdeko hegaletik pasatzen da bidea Itziarra heldu arte, azkenik Debara jaisteko.

Oinez ibiltzen ohituta zaudetenok ibilbidea luzatu dezakezue Itziarren; Itziar eta Elorriaga lotzen dituen Santiago Bidea hartuz, eta Elorriagan Debarantz datorren GR 121a jarraituz. Aukera hau hartuta, herriko bira osoa egin daiteke.



Este recorrido parte de Deba para adentrarse en el idílico valle de Lastur, siguiendo el antiguo canal de conducción de aguas, hasta llegar al núcleo rural de San Nicolás de Lastur. Desde allí, ascendiendo y bordeando las faldas del monte Salsamendi, discurre por la ladera oriental de los montes Andutz y Txobillar hasta llegar a Itziar, descendiendo finalmente hacia Deba.

Quienes estén muy habituados a caminar, pueden ampliar el recorrido tomando en Itziar el tramo del Camino de Santiago que une Itziar y Elorriaga, y posteriormente el GR 121 desde Elorriaga hasta Deba. Optando por esta segunda opción prácticamente se completaría la vuelta al municipio.

## FITXA TEKNIKOA /*FICHA TÉCNICA*:

- Iraupena / *Duración:* 5 h
- Luzera / *Longitud:* 19,5 km
- Zailtasuna / *Dificultad:* Ertaina-Media
- Desnibela / *Desnivel:* 404 m
- Desnibel metatua / *Desnivel acumulado:* 718 m

**PR Gi 44** IBILBIDEAREN SEINALEZTAPENA / *SEÑALIZACIÓN DEL RECORRIDO*

- Norabide zuzena / *Continuidad del recorrido*
- Norabide aldaketa / *Cambio de dirección*
- Norabide okerra / *Dirección equivocada*

## Jarraibideak / Pautas a tener en cuenta

**Txakurrak beti lotuta eraman.**
Los perros deberán ir siempre atados.

**Ez piztu surik eta ez bota zigarrorik.**
No hagas fuego ni tires cigarrillos.

**Ez eraman landare, animalia, mineral edo fosilik. Paisaiaren osagarriak dira.**
No recolectes plantas, animales, minerales o fósiles. Forman parte del paisaje.

**Abeltzaintza eremu batean zaude. Bidean aurkitutako langa eta hesiak itxita utzi. Errespetatu gure nekazarien lana.**
Estás en una zona de uso ganadero. Cierra las puertas y barreras que encuentres por el camino. Respeta el trabajo de nuestros baserritarras.

**Mendi zidorretatik bakarrik ibili. Saiatu mendira bakarrik ez joaten.**
Camina únicamente por los senderos acondicionados. Intenta no ir nunca solo al monte.

**Ez bota edo utzi zaborrik.**
No abandones ni entierres la basura.

**Debekatuta dago kanpatzea.**
La acampada no está permitida.

+ ((112))
SOS DEIAK

1 Txangoa hasteko, Bilboranzko N-634 errepidearekiko paralelo dagoen ibilbidea hartuko dugu; hain zuzen ere, antzinako udal hiltegi ondoan dagoen Maxpe etxe aurreko ibilbidea. 500 metro egin ondoren, Artzabal auzora helduko gara. Santa Ana ermita ondotik pasako gara, eta Antzondo baserrirako errepidea hartuko dugu, Artzabalgo garbitokiraino.

### ARTZABALGO GARBITOKIA



1851. urtean eraiki zen bertako auzotarren beharrei erantzuteko. Bi isurialdeko teilatu batez babesturik dago. 2004an zaharberritu eta bere ondoan Marino Plaza zeramikagilearen horma-irudia jarri zen.

Handik 100 metrora, antzinako zentral elektrikoaren eskuineko errepidea, mendian goranzkoa, hartuko dugu. Laburra, baina handia den aldapa igo eta gero, Istiña lepo barometrikora helduko gara. Handik, Deba ibaiko meandroaren bista bikainaz goza dezakegu. Aurrez aurre, Arno mendi-puska guztiz estaltzen duen kantauriar artez osatutako mantu iluna ikusiko dugu.

Eskuinaldean Istiña baserria geratuko zaigu, eta A-8 autobidepetik igaro eta gero, Goikoetxe baserriaren ondoan dagoen bide-kanalean sartuko gara; hain zuzen ere, 1920tik 60ko hamarkada arte, Deba urez hornitzeko balio izan zuen bidean.



### KANALA: ARBISKOATIK DEBARA UR-EKARRERA

1920an proiektatu zuten Panadero eta Freiberj ingeniariek; etxez etxeko ur hornikuntzaren egoera kaskarrari aurre egitea zuen helburu, eta aldi berean, energia elektrikoaren produkzio eta salmenta Udalaren gain uztea.

3 urtetan zehar egindako lanetan arazo dezente izan arren, 1925eko udan amaitu zituzten eraikitze-lanak.

Lastur ibar zoragarritik pasatzen zen kanal zaharra gaur egun erabiltzen ez denez, **PR-GI 44** izatera pasa da, natura eta Euskal Herriaren historia maite dutenentzako ibilbide paregabe bihurtuz.

2 Arbil mendi magalaren ertzetik, haran idilikoaren atzealdea ikusiko dugu, eta bertan Arteaga (Artia) eta Sustraiaga (Sustraixa) baserriak ikus daitezke. Aurrerantz eginez gero, Lizarreta mendiaren hegalera helduko gara. Eskuinaldean, 100 metro inguru bidean behera eginez, Kortaberri baserria eta beherago Arrasketa ikusiko ditugu. Hemendik oso gertu, ur-kanalaren gainaldean, Arbil haitzuloa dago.

### ARBIL HAITZULOA



Haitzuloaren ahoak ferra-arkuaren forma du, eta 1924an aztertu zuten T. Aranzadik eta Jose M. Barandiaranek.

Gerora, 1977an, Jesus Altunak eta Pablo Aresok zuzendutako indusketa egin zen.

Hobian, industria litikoaren erakusgarri garrantzitsuak agertu ziren, fauna hondakinak eta historiaurreko hilobiak; azken horiek 1986an aurkitu zituzten Azpeitiko Antxieta taldeko kideek.

Ziurrenik, betizu-talde bat bazkan ikusteko aukera ere izango dugu, Lastur Haranerantz goazela.



Lasturko haranaren bista orokorra Gaztelu menditik.

### ARTE PAREGABEA



Arrasketa baserriaren lurretan, Kortaberri baserriaren alboan eta kanaletik hurbil, kantabriar arte paregabea dago.

25 metroko adaburu oparoa du eta 3,42 metroko perimetrodun enborra, oinetik 50 cm-ra.

3 Behin Lasturko San Nikolas auzoan, geldiune bat egin, hamarretakoaz indarberritu eta auzoa bisitatu dezakegu.

### SAN NIKOLAS TOLENTINO ERMITA



Lope de Isastik aipatu zuen 1625erako.

Historikoki Lastur eta Arbiskoako baserrietako eliztarrak bildu izan dira bertan.

Irailean ospatzen dute Santuaren izeneko festa.

Ermita aurrean dagoen plaza txikian Europako behi-arraza autoktonorik zaharrenekoak diren larrabehi eta betizuak ateratzen dituzte bertaratzen direnen gozamenerako.

### PLAZAOLAKO ERROTAK



Benetako ondare-erlikia dira, errota bihurtu aurretik burdinola garrantzitsuak zirelako. Lastur ibarreko eta eskualdeko beste burdinolen eskaerari erantzunez, Alfontso XI.ak, 1335ean, zedula bat luzatu zuela agertzen da; bertan, beste pribilegio batzuen artean, inguruko mendietan zuhaitzak mozteko baimena eman zien.

Bikain gordeak eta jardunean, bisitariak jasotzeko prest daude.

### KARSTAREN INTERPRETAZIO GUNEA




Euskal Kostaldeko Geoparkeko interpretazio gune hau Lasturko plazan dago. Baserria, haitzuloak, ura, kareharria eta zezenak dira inguru horretako protagonistak, eta interpretazio panelen bitartez, haranaren historia, kultura eta geologia ezagutu ahal izango dugu.

Errota atzean, errekaren alboan, Murgirantz doan bidea hartuko dugu. Murgi baserri paretik igaroko gara, Murgizar baserrira heldu arte. Behin hara helduta, GI-3210 errepidea gurutzatuko dugu.

Urritzu eta Andutzerako bidea alde batera utzi, eta eskuineko bidea hartuko dugu, gero Salsamendi mendi magalaren ertzetik ibiliko gara.

Geroago, bideak mendiaren aurkako isurialdera eramango gaitu; Esteia baserrira heldu gara.

4 Ezkerreranzko bidea hartuz gero, ekialdeko hegaletik ibiliko gara; lehenengo Salsamendi mendiaren hegaletik, eta gero, Andutz mendiarenetik. Ikuspegia bikaina da, eta atzealdean, Jaizkibel, Aiako Harriak eta Larrun mendiak ikus daitezke.

Besteak beste, Irure baserria eta Txobillar ertzetik igaro eta gero, Itziarko industrialdera iritsiko gara.

### ITZIARKO SANTUTEGIA



Erakargarritasun erlijioso handia duen gunea da; 1294an fundatutako Monreal herria bezain zaharra edo zaharragoa da Itziarko Ama Birjinarenganako euskal kostaldean dagoen eraspena. Gaur egungo eliza baino lehen beste bat egon zen, baina ez da haren aztarnarik geratzen.

Estilo erromanikoa duen Ama Birjinaren irudi eder baino ederragoa ikus dezakegu barruan, XIV. mendea baino lehenagoko elizaren garaikoa. Erretaula ere XVI. mendean Andres Araozek tailatutakoa da, estilo platereskoa duen erretaula eder askoa.

5 Indarrak berritzeko Itziarren geldialditxo bat egin ondoren, santutegiko plazaren ondotik Debarantz jaisten den bidea hartuko dugu. Bide zati hau Done Jakue bidea da. Pista Antsorregi, Gaztañeta, Zabale eta Doniene baserrien paretik pasatzen da, guztiak ere seinalizatuak, bidegurutze batera iritsi arte.

Albo batera utziko dugu eskuineko bidea (Ollokira doana), eta aurrera jarraituko dugu Debarantz. San Roke ermita ondotik igarotakoan, minutu gutxiren buruan iritsiko gara Debako herrigunera.



### SAN ROKE ERMITA

Itziar eta Deba arteko galtzadan dago. Estilo herrikoia duen ermita da, Debako zaindariari eskainia. Jatorria ezezaguna den arren, 1612an, jada, aipatzen da. Dirudienez, 1600eko lehen hamarkadan herriak jasandako izurritetik libratu izana eskertzeko jaso zioten Montpellierreko santuari.

San Rokeren irudia nabarmentzen da ermita barrenean baina zinopari bat ere ikus dezakegu bertan, zonaldeko beste askotan bezala: XVIII. mendeko gerra-fragata bat.




Deba TURISMOA
TURISMO BULEGOA-OFICINA DE TURISMO
Ifar kalea, 4 • 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 192 452 • turismoa@deba.eus
www.deba.eus

**BEHE DENBORALDIA - *TEMPORADA BAJA***
Astelehenetik ostegunera / *De lunes a jueves:* 10:00-14:00
Ostiral eta larunbatak / *Viernes y sábados:* 10:00-14:00 / 17:00-19:00
Igande eta jai egunak / *Domingos y festivos:* 10:00-14:00

**ERDI DENBORALDIA - *TEMPORADA MEDIA***
Astelehenetik larunbatera / *de lunes a sábados:* 10:00-14:00 / 16:00-19:00
Igande eta jai egunak / *domingos y festivos:* 10:00-14:00

**GOI DENBORALDIA - *TEMPORADA ALTA***
Astelehenetik larunbatera / *de lunes a sábados:* 10:00-20:00
Igande eta jai egunak / *domingos y festivos:* 10:00-14:00

Bisita gidatuak - *Visitas guiadas*
**www.geoparkea.eus**

Debako Udala
EUSKADI BASQUE COUNTRY
EXPLORE SAN SEBASTIAN REGION
deba BARRENA
Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura • Costa Vasca Geoparque mundial de la UNESCO
Hezkuntza Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea • Euskal Kostaldea UNESCOren munduko Geoparkea
02-2018
Egilea/Realización: Kaioa (Deba)